

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko otsailaren 2a

*

Elurra, beste garai batzuetako urre zuria


- *Elur urte, gari urte* esaera zaharrak dioen bezala. Aspaldiko elurgizonentzat, behintzat, halaxe izanen zen, mendi tontorretan eroritako elurra bildu eta Nafarroako herrietan salduz bizitzeko adina diru irabazten baitzuten. XVI eta XVIII. mendeetan batez ere —baita lehenago eta beranduxeago ere— funtsezkoak izan ziren elurzuloak, elurra biltzeko zuloak alegia, garai hartako biztanleentzat. Elurra, finean, beharrezkoa zen, sugarra jaitsi, odol-jarioa moztu, edo, besterik gabe, jela egiteko erabiltzen baitzuten. Beste garai batzuetako urre zuria. XX. mendearen hasieran lehenengo izotz fabrikak agertu zirenean desagertu ziren elurzulo eta elurgizonak. ■



Mezuak

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Carioco & Estrella, hamabi urteko mukizuak mezua utzi zuen bere printzesaren etxeko paretan. Neskatxaren aitari irri xorta bat eskapatu zitzaion ahotik, «ederra da pentsatzen dena erratea» aitortu zion alabari. Telebistan *El Sur* filme hori ikusi eta Lankratx kalera atera zen instantean espraiarekin. Bergamin kalearen goiko aldera ez al duzue ikusi? *Maite zaitut, laztana*, letra haundietan. Baina ondorioa, jakina: gure hizkuntza xeble honetan eskribitu baitzuen, segituan harrapatu zuten gorrotoaren hatzaparrekin uniformatuek. Gau osoan *laztanduzuten* eta bihar-muneko arratsaldeko partean libre utzi, eskatu gabekoak hartu ondotik.

Etxera bidean jende multzo haundi bat ikusi zuen, lazo urdin banarekin, (haisetako frankok horrexekin tapatzen zituzten begiak) askatasuna eskatzen, eta haien parean bertze jende sail bat, pankarta batzuekin (haisetako aunitzek

horiexekin tapatzen zituzten beren lotsariak), haiek ere askatasuna eskatzen. Arbolen adarretatik argazki aunitz, falta ziren pertsonak batzuk eta betiko joanak zirenenak bertzeak. Bi aldeetan. Bien artean bertze talde bat ikusi zuen, denak serio eta pentsakor, *elkarri* hitzarekin nork-zerik gabe esaldia osatu ezinik. Ohatzera sartu baino lehen ilunpetan erabili zuen berriz ere oraindik berekin zeraman espraia: *Yo no soy feliz en este pueblo*. Ez al duzue ikusi Zizur Nagusiko arkupe batzuetan?

Burrumba berezi batek iratzari zuen gau betean. Deitu zidan eta kanpora atera ginén elkarrekin. Jende tropa bat ikusi genuen laisterka. Haien pauso-hotsen danborra izan zen loa galarazi ziguna. Multzoa haunditzen joan zen, etxeetatik gu bezala atera zirenekin. Gu ere haien martxari lotu ginén. Denak mutu zihoazen. Paper bat lutzatu zigun laisterkari batek: *Disidenteak gara*;

mende honetan izan diren 'gerra' eta mugimendu guzietatik pasa eta ateratakoak; batzuk ixilaraziak eta bertzeak autoixilduak; ez dago egriarik. Herriaren erdialdera ailegatu ginén. Paretak pintura beltzeko mezuekin bete zituzten. Irudi bakar bat, eta denek irudi bera: '?'. Nora—zergatik—zertarako... izan zitekeena. Ez al dituzue ikusi Alde Zaharreko karrketan?

Victor Erizeren filmean Omero Antoniutti hegoaldera abiatu zen bezala, guk gure iparraren bila joatea erabaki genuen. Inongo geografia liburutan ageri ez den haretxera. Bidearen azken muturrean, gure galdera guziak ereiteko lur gozoa izatea espero dugu, gero gure zalantzen fruituak maitasun osoz biltzeko. Eta gure mingainetako korapiloak laxatuko dituen sagardo ona ere bai, solas egiteko ahalmena eta ausardia berriz ere gureganatzeko. Ederra baita pentsatzen dena erratea! X

KONTZERTUAK

Iruñea: Pablo Sarasate orkestrak Gaiarre Antzokian joko du gaur. Musika emanaldia arratsaldeko 20.00etan izanen da.

Gares: Funda Mental aretoan Los Suaves taldeak joko du gaur gaueko 23.00etan. Bihar, berriz, F. Burrito Brothers-en txanda izanen da ordu berean.

Lizarra: La Facultad tabernan Los Rocanrolaris taldeak joko du gaur gaueko 23.30etan.

ANTZERKIA

Zizur Nagusia: Kollins Clown taldeak *Karakollins* lana antzetzuko du gaur Kultur Etxean. Emanaldia 22.00etan da eta sarrera 500 pezeta.

Milagro: Gus Marionetas taldeak *La princesa de fresa* lana antzetzuko du bihar arratsaldeko 18.00etan herriko igerilekuetan.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Kultur Etxean Eduardo Armañanzas margolariak bere lanen erakusketa paratu du. Margoak otsailaren 11 bitartean daude ikusgai. Lanegunetan, 19.00etatik 20.30etara eta jaiegunetan, 12.30etatik 14.00etara.

Tafalla: Udal Kultur Etxean, Salvador Bernaberen olioak daude ikusgai otsailaren 7ra arte.

Lizarra: Gustavo de Maeztu museoan Joan Miro margolari kaluniarraren lanak daude ikusgai otsailaren 28a bitartean.

Iruñea: Gotorlekuko Mixtos Aretoan *Munduko intsektu arraroenak* erakusketa dago ikusgai otsailaren 29ra arte. Lanegunetan 17.30etik 20.00ak arte dago zabalik eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

BESTELAKOAK

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkar-teak Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzan diapositiba emanaldia antolatu du gaurko. Isabel Perez eta Jose Carlos Painer mendizaleek Indiako Himalayan egintako espedizioaren berri emanen dute. Emanaldia arratsaldeko 20.00etan izanen da.

Iruñea: Zaldiko Maldiko elkar-tean, datorren ostegunean, Pello Zabala meteorologoa eta apaiza eguraldiaz eta herri jakintzaz mintzatuko da. Hitzaldia arratsaldeko 19.30etan izanen da.

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkar-teak mendiari eta naturari buruzko argazki ikastaroa antolatu du otsailaren 12, 13, 14 eta 15terako. Informazio gehiago lortu edo izena eman nahi duenak elkar-teak Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzatik pasa daiteke edo 22 43 24/22 98 20 telefonoetara deitu.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Auditoriuma zertarako?

Nafarroako auditoriumari buruz Iruñean egunotan egiten ari den hitzaldi zikloan azken hamar urtetan sortu diren lau proiektuak izan dira aztergai. Bik -Luis Felipe Gaztelurena eta Fernando Redonena- Entzutegiaren eta Gotorlekua-ren artean dagoen aparkalekua aukeratu zuten egoitzarako. Beste proiektu bat Beraineraino joan zen, eta obrak hasita dituen bakarra Barañainen dago.

Ikuskizun kulturalak egiteko hiriburuak dituen gabeziak ezagunak dira, eta kronikoak. Gaiarre Antzokia birmoldaketa sakona eskatzen ari da aspalditik hona eta enpresa ku-deatzaileak ez omen du milioi asko eskatzen dituen lanak hasteko asmorik, luze barru bukatuko zaio-eta indarrean dagoen kontratua. Iruñeko Udalak azaldu du bere asmoa inbertsioak egiteko antzoki zaharrean, baina kultur eragile guztiek uste dute eraikuntza malguga -antzergia ez ezik, musika, opera, zinema, jardunaldiak, kongresuak, hitzaldiak- behar dela Nafarroako populazio erdia biltzen duen

Iruñerrian. Inbertsio handia eskatzen du proiektuak, eta administrazio publikoen eta enpresa pribatuen arteko ezinbesteko elkar-lana.

Harrigarria da, ordea, horrelako adostasuna izatea lanari buruz, eta hainbeste atzeratzea lanak. Hor dago, bitartean, Iruñeko Planetarioa, azkar asko egin zena eta zertarako eta zergatik egin zen oraindik oso garbi ez duena. Planetario bat hiri handien eraikina izan ohi da beti, Zoo bat edo ikuskizun-parkearen antzerakoa. Alegia, gutxienezko azpiegiturak eginak dauzkaten hiridako aisialdirako eraikin osagarria. Praktikan, Planetarioan egiten ari diren ekitaldi entzutetsuenak, gainera, auditorium batek egin beharko lituzkeenak dira: bideo erakusketa, hitzaldiak eta mahainguruak, erakusketak, aurkezpenak...

Behar al da, beraz, auditorium berria? Ez al litzateke logikoagoa Planetarioa gehiago indartu eta Barañaingoa bukatzea? Zenbat aldiz beteko litzateke 2.000 pertsonendako eraikin moderno eta ezinago dotorea?



asteko pertsonaiak



Jorge Oteiza
Eskultorea

■ Jorge Oteiza eskultore oriotarrak bere eskultura bat paratuko du Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP). Oteiza astelehen arratsaldean izan zen Iruñean, NUPeko eraikuntzak ikusten. Eskultore oriotarrak ezarriko duen eskultura Saenz de Oiza Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arkitektura proiektua egin zuenaren omenez izanen da. Eskultura unibertsitateko lorategietan kokatuko da, ikasleen gelen eta liburutegiaren artean. Oraindik ez da erabaki noiz paratuko den eskultura Iruñeko unibertsitate garraiatzen zaila izanen delako, nahikoa handia baita. Oteizak erran duenez, eskultura liburu irekia da eta era berean hegan ari da, 'poesia eta sormena hegan egitea delako'.



Paco Ignacio Taibo II
Idazlea

■ Paco Ignacio Taibo II idazle mexikarra Iruñean izan zen astelehenean. Nafarroako Txalaparta argitaletxearen eskutik, *El año que estuvimos en ninguna parte* liburua aurkeztu zuen gurean idazle mexikarrak. Liburu hau Froilan Escobar eta Felix Guerra kazetari kubatarrekin batera idatzi du Taibok eta 1965ean Ernesto Che Guevarak Kongon eman zuen urtea jasotzen du. Urte askotan zehar sekretua izan da urte horretan Ernesto Che Guevara non izan zen. Garai hartan makina bat zurrumurru izan zen eta Ipar Euskal Herrian zegoela esan zuenik ere izan zen. Liburuaren egileek, Cheren beraren hitzak eta testigantza ugari tartekatuz, urte horretan gerrillariaren bizitzan gertatutakoak berri ematen dute.

ahaztúgabe!



IKASTAROA

Belagua: Nafarroako Kirol Elkar-teak, Erronkari bailarako eski eskolarekin batera, iraupeneko eskia ikasi nahi dutenentzako ikastaroak antolatu ditu.

Dagoeneko bat ahitu berria bada ere, oraindik beste bi gelditzen dira eta hiru asteburu jarraitzen egingen dira Belaguako eski pistetan.

Iraupeneko eskiko bigarren ikastaroa igande honetan hasi eta otsailaren 11 eta 18n izanen da. Azkenekoari otsailaren 25ean emanen zaio hasiera eta martxoaren 3an eta 10ean burutuko da.

Ikastaroak 14 urtez behiti dituzten bazkideentzat 6.000 pezeta balioko du eta bazkide ez direnentzat 7.000 pezeta. Hamalau urte baino gehiago dituzten bazkideak 7.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 1.000 pezeta gehiago.

Aipatu ikastaroari buruz informazio gehiago lortu nahi duena edo izena eman Nafarroako Kirol Elkar-teak Jarauta 78. zenbakian duen egoitzara hurbil daiteke edo 22 43 24/22 98 20 telefonoetara dei dezake.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Tutera

Ingurugiroaren aldeko kanpaina abian da

Hilaren 25ean herritarrek ospatuko duten Zuhaitzaren Eguna emanen dio amaiera

Tuterako Udalak ingurugiroaren aldeko kanpaina antolatu du 'Otsaila berdea' izenburupean. Hil osoan zehar ekitaldi ugari egingen dituzte «ingurugiroaren arazoak ezagutarazi eta herritarrek sentsibilizatu asmoz». Otsailaren 25ean, azkenik, Zuhaitzaren Eguna ospatuko dute kanpainari amaiera emanez.

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO UDALAK La Obra Tailer-Eskola eta Landazuria talde ekologistarekin batera, ingurugiroaren aldeko kanpaina antolatu du hasi berri den otsailarako. Otsaila berdea izenburupean hainbat ekitaldi burutuko dira datozen asteotan. Hilaren 25ean ospatuko duten Zuhaitzaren Eguna emanen dio amaiera Udaletxeko kanpainari.

Tuterako Udaleko arduradunek kanpainaren aurkezpenean aipatu zuten, ingurugiroak egun bizi dituen arazoak ezagutarazi eta jendea sentsibilizatu nahi dute antolatutako ekitaldien bitartez. Hasteko, ekosiste-



Zuhaitzaren Eguna ospatuko dute hilaren 25ean.

ARTXIBOKOA

ma ezberdinen berri ematen duen erakusketa zabaldu zuten atzo herriko Castel Ruiz Kultur Zentroan. Erakusketa otsailaren 24ra bitartean ikusi ahal izanen da, arratsaldeko zazpietatik bederatzia arte. Otsailaren 12tik 29ra, berriz, sendabelarrei buruzko jardunaldiak egingen dituzte ETI ikastetxean.

Bestalde, Alfonso Aranda Zahorí taldeko kideak zuhaitzei buruzko hitzaldi sorta emanen die Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila bitarteko haurrei. Arandak hilaren 5a eta 9a bitartean bisitatuko ditu herriko ikastetxe ezberdinak. 12tik 16ra, berriz, La Obra Tailer-Eskolako kideek landareak lantzen

irakatsiko diete haurrei.

Kultur ekitaldiek ere leku izanen dute ingurugiroaren aldeko kanpaina honetan. Hilaren 20an, hain zuzen, Gorakada txotxongilo taldeak Nahikoa bere obra taularatuko du Jesuiten ikastetxean, arratsaldeko bostetan. Biharamunean bi pelikula ikusteko aukera izanen dute herritarrek, lehenengoa haurrentzat eta bigarrena helduentzat. Arratsaldeko bost eta erdietan *Cuando vuelvan las ballenas* botako dute eta zortziak eta laurdenetan, *Baraka*.

Otsailaren 25ean, azkenik, Zuhaitzaren Eguna ospatuko dute tuterarrak. 120 landare eta 80 zuhaitz landatuko dituzte Pradoko pasealekuan. Halaber, egun osoan zehar ere bomba japoniarrak eta suziriak botako dituzte herriko haurrentzat eta eurek egindako marrazki erakusketa ere ikusi ahal izanen da. Musika herriko bandak eta Tuterako gaiteroek jarriko dute. X

Bortziriak

Papera biltzeko kontainerrak jarri dituzte

Hiri hondakinak eta zarama % 20 gutxituko dira edukiontzi berriei esker

Jon Abril / Bera

ASTE HONETAN, Bortzirietan papera eta kartoiaren bilketa selektiboa hasi da. Bortzirietako Hiri-Hondakin Mankomunitateak, Europako Batzordearen eta Estatuaren aholkuei jarraiki jarri du martxan zerbitzu berria. Lehenagotik dauden beira eta zabor arruntaren bilketarako gehigarri izanen da.

Urte osoko astelehen eta ortzegunero bilduko dituzte papera eta kartoiak eta lardinen, uda partean, egunero. Denda eta lan-tegiei dei berezia egin diete zerbitzu honetan parte hartzeko. Hauek, eta oro har kartoiak botako dituen edonork, tolestu eta lotu egin behar ditu eta paperentzako propio jarritako edukiontzien aldamenen utzi behar dira. Ontziak, zabor arruntak baino handiagoak dira eta tapa urdina dute gaineko aldean.

Baina material guztiak ezin dira birziklatu. Egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, publizitate orriak, kartoizko kaxak eta paper garbiak sar daitezke kontainerretan. Birziklatzeko balio ez dutenak, zelulosazko pixoi-halak, paper eta kartoi zikinak eta plastikoz eta zelofanez inguratutako paperak dira.

Zerbitzu berri honekin, Ibar-

dingo zabortegira doan zarama % 20 gutxitzea lortuko da. Era berean, uraren eta ingurugiroaren kutsadura murriztuko da. Halaber, zuhaitz ugari ebakitzea eragotziko da, birziklatutako tonna bat paperak, 14 zuhaitzek

ematen duten fibra kopuru bera eragiten baitu.

Azkenik, kontuan izan behar da, paper zaharretatik eratorritako papera ekoizteak, % 30 eta % 50aren arteko energiaren murrizketa dakarrela. X



Gisa honetako paperontziak paratuko dituzte Bortzirietan.

ARTXIBOKOA

Iruñea

Agate Deunaren eguna ospatuko dute igandean

Auzoko Jai Batzordeak antolatuta

Erredakzioa / Iruñea

URTERO BEZALA, Agate Deunaren eguna ospatuko dute igande honetan Errotxapeko auzotarrek. Aurten ere egitarau zabala prestatu du Errotxapeko Jai Batzordeak, Iruñeko Udalaren eta herriko elkarten laguntzaz. Agate Deunaren omenezko eguna behar den bezala ospatzeko, lehenik eta behin, arratsaldeko ordu biak eta erdietan bertso bazkaria egingen dute Juslarrotxa Kultur Zentroan. Bertan izanen dira Jokin Sorozabal, Jon Sarasua eta Estitxu Arozena bertsolari gazteak. Txartela eskuratu nahi duenak gaur izanen du azken eguna. Sarrerak Basajaun jatetxean, Xalbador euskaltegian eta Iruñezar euskaltegian izanen dira, 1.500 pezetan.

Bertsolariek mahai gainean botatoko bertsoen ondoren, abesbatzak izanen dira Errotxapean protagonista Agate Deunaren omenez. Sarries plazan eta Juslarrotxa Kultur Zentroan bertan elkartuko dira aipatu abesbatzak, eta auzoko karrika guzietan barrera ibiliko dira giroa musikaz alaitzen. Antolatzaileek, bestalde, ekitaldi honetan parte hartu nahi duenak baseritarren soina janzteko eskatu dute, Agate Deunaren omenezko egunean giroa ahalik eta aproposena izan dadin.

Abesbatzak kaleetan zehar ibilbidea egin ondoren, Porrón plazan elkartuko dira parte-hartzaile guztiak eta elkarrekin abestuko dute Agate Deunaren omenezko ekitaldiei behar den bezalako amaiera emateko. X

HELDUEN EUSKALDUNTZERAKO IKASTEGIA

Nafar Gobernuko Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamenduaren Helduen Euskalduntzerako Ikastegiak urrats guztietako matrikula zabalik dagoela jakinarazten du

Matrikula epea: Otsailaren 5etik 9ra

Matrikula ordutegia: Goizez: 9etatik 12etara
Arratsaldez: 5,30etatik 7,30etara

Ikastaroen hasiera: Otsailaren 19an

Ikastaro motak:

- | | |
|-------------------------------------|---------|
| 1.- Trinkoa. Lau ordukoa | (5.000) |
| 2.- Bi ordukoa. | (2.500) |
| 3.- Euskara teknikoa (60 ordu) | (3.000) |
| 4.- Itzulpen gintza (30 ordu) | (1.500) |
| 5.- Nafarroako Euskalkiak (30 ordu) | (1.500) |

Ikasle berriek, matrikulatu ahal izateko, argazki bat ekarri beharko dute eta sailkatze froga bat egin, dagokien maila jakiteko. Ikastaro bakoitzeko talde zein ikasle kopurua mugatua da.

Matrikulazioak Helduen Euskalduntzerako Ikastegian egingo dira. Victoriano Juaristi z/g (San Jorge) 31012 Iruña.

Argibide gehiagorako: 177670-177654



Mendi tontorretik elurzulora

Elurgizonek neguan eroritako elurra bildu eta gero saldu egiten zuten antzina Nafarroako herrietan

Horma egiteko lehenengo fabrikak XX. mendearen hasieran agertu ziren arte, neguan mendietan egindako lurra biltzen zuten Nafarroako herrietan, sukarra jaisteko, jelak egiteko edo, besterik gabe, ardoa hozteko. Elurgizonak elurzuloan bildu eta zapaltzen zuen elurra, Pazko igandetik azarora bitarteko denboran saltzeko. Antzinateko ohitura bada ere, XVI. mendean egin zuen gora Nafarroan, eta XIX.ean, berriz, behera. XX. mendearen hasierarekin, azkenik, desagertu egin ziren elurzuloak.

Edurne Elizondo / Iruñea

GAUR EGUN ia edonork eskura duen asmakizuna da izozkailua, ezinbestekoa askorentzat, eta uda garaiko beroak lepoa estutu eta arnasa ere kostata hartzen denean bereziki preziatua. Izan da, hala ere, izozkailurik gabeko garairik. Lehenengo izotz fabrikak, izan ere, XX. mende honen hasieran agertu ziren, antzinatek ordura arte elurzulo edo elurtegiek burutzen zuten lana eginez. Izotz fabrikekin batera, beraz, langabezian gelditu ziren elur biltzaileak.

Elurtegi eta elur biltzaileen zeregina, nahiz eta ezezaguna den egun, funtsezkoa izan zen beste garai batzuetako jendeen eguneroko bizitzan; izan ere, besteak beste, sukarra jaisteko, odol jariora mozteko edo hezur-hausturek eragindako mina lasaitzeko, erabiltzen baitzen neguan mendi tontorretan eroritako elurra. Baita jelak egin eta ardoa hozteko ere. Elurra antzinatek erabili izan da zeregin hauetarako, eta baita beste batzuetarako ere, baina Nafarroan XVI. mendeaz geroztik egin zuen gora, batez ere. Hurrengo mendeetan ere asko zabaldu ziren elurtegiak, harik eta XIX. mendearekin batera beherakada hasi zen arte. Izotz fabriken agerpenarekin bat eginez, azkenik, XX. mendearen hasieran desagertu egin ziren.

Neguko hotzarekin batera mendietan eroritako elurra gordetzea zen, beraz, biltzaileon lana. Bildutako elurra, zeregin horretarako propio eraikitako elurzulo edo elurtegietan sartzen zuten, hain zuzen. Elurtegi hauek lur azpikoak izaten ziren, naturalak edo artifizialak. Zuloa harriz estaltzen zuten eta zola ere sasi, belar eta xirmenduz betetzen zuten, elurra bertan jarri aurretik. Elurzulo artifizialak oso eraikin dotoreak ziren kanpotik



Elurra sendagarri gisa erabiltzen zuten, besteak beste.

ARTXIBOKOA

eta giltzaz ere itxi egiten zituzten, elurra inork har ez zezan.

Pazko igandetik azarora bitartean saldu • Urbasa, Andia eta Sarbilen biltzen zen Nafarroan elur gehien, eta elur hori erregearena zen. Jabetza zela eta ez zela, hala ere, hamaika eztabaida egon zen, erret monopolioaren aurka. Erregeak elurgizon bati ematen zion errentan mendi horietako elurra biltzeko eskubidea. Elurgizon honek, era berean, langileak kontratatzen zituen elurra elurtegi-tan bildu eta zanpatzeko. Azkenik, herrietan saltzen zuen elurgizonak elurra. Menditik herrietara eramateko, udaberriko egun hotzak izaten ziren aproposenak.

Herrietako elurzuloak herri lurretan zeuden normalean, baina izan ziren elurzulo pribatu bana-bana batzuk ere. Herri bakoitzeko udalak errentan ematen zion herriko norbait elurzuloa, eta honek, elurgizonari elurra erosi eta herrian bildu egiten zuen. Ondoren, Pazko igandetik azarora bitartean elurra saldu egiten zuen.

Salmenta, hala ere, ez zen Nolanahikoa izaten, arau estuak ezartzen baitzituen udalak. Prezioa, adibidez, finkoa zen, eta elurtegi arduradunak gau eta egun egon behar zuen elurra saltzeko prest. Bestela, isuna ere jaso zezakeen. Herri bakoitzean, hala ere, aipatzekoa da bertako arduradunak ez beste inork ez zuela elurra saltzeko eskubiderik. Halaber, elur gutxiko urteetan Urbasa edo Andia bezalako eremuen garrantziak gora egiten zuten, hor biltzen baitzen elur gehiena. Elurgizonak, noski, egoera horren abantaila aprobetxatu, eta garestiago saltzen zuen.

Nafarroako mendi garaienak iparraldean biltzen direla kontuan hartuz, bestalde, elur erosle nagusiak hegoaldeko edo Erribera aldeko herriak zirela erran beharra dago, ezin baitzuten eurek bildu. Monopolioaren eta urte bakoitzean eroritako elurraren arabera, leku batean edo bestean erosten zuten hain beharrezkoa zuten elurra. Elur gutxiko urteetan, noski, gainontzeko herrietako elurgizonek bezala, Urbasa eta Andia ingurura joan behar zuten Erriberakoek ere eroatera.

Elurraren toponimia

ELURGIZONEN zeregin honek Nafarroako hainbat eta hainbat herritako toponimian ere utzi du aztarnarik, Mikel Belasko adituak jakinarazi digunez. Azken finean elurra biltzeko zuloa denak, hain zuzen ere, hainbat deitura izan ditu gure herrialdeko herrietan. Zarikegin, adibidez, *neberaxokoa* da elurra biltzeko zuloa izendatzeko erabil-

tzen duten hitza. Eloquentzen, berriz, *neberapea* eta Galar-Espartzan, azkenik, *neberaldea*. *Gaztelera*z ere, hain zuzen ere *nevera* deitu izan zaio. Hala ere, bada Nafarroan beste deiturarik ere. Aralarren, adibidez, *elurzulo* hitza erabili izan dute. Tristansareko elurzulo naturalari, berriz, *elurzuloeta* erraten zaio eta Auritzen, azkenekoz,

elurputtu hitza aurkitzen dugu. Iruñeko toponimiak ere jasotzen du elurzulo edo elurtegi berri. *Nafarroako Entziklopedia*-ren arabera. Bertan aipatzen denez, Iruñeko Pozoblanco kalean izan zen elurzulo bat eta bertatik datorkio, hain hain zuzen ere, izena kale honi, elurputzua bertan izan zelako. Mikel Belaskok, hala

ere, zalantzak baditu baieztapen horri dago-kionez. «Arazuriren *Pamplona, calles y barrios*» liburua, adibidez, beste azalpen bat ematen dio Pozoblanco kalearen izendapenari. Bertan ageri denez, hain zuzen ere, gatza biltzeko putzua izan zen bertan, *pozo de las salinas* delakoa. Eta gatza ere txuria da, beraz, Arazuriren azalpena ere

onargarria eta zuzena izan daiteke, nire ustez». Nafarroako toponimiak, beraz, jaso du elurzuloen berri. Herri bakoitzean izendapen bat izan badezake ere, beste garai batean izan zuen garrantzia agerian uzten du toponimian izandako isla honek ere. Azken finean, produktua preziatua izan zen elurra eta gauza askotarako erabilia, gainera. X

Elurgizon bakoitzaren trebetasuna elurra biltzeko ere garrantzitsua izaten zen.

Elurrik eza baino gehiago, hala ere, erregeak elurrarekiko zuen monopolioak sortarazi zituen XVII. mendean eztabaidarik bizienak. Gai honen inguruan, hain zuzen, 1604. urteko Iruñeko Gorteak izan ziren erabaki bat hartu zuten lehenengoak. 1604. urteko Gorteak, hain zuzen, argi eta garbi agertu ziren erregeak Urbasa-Andiako eluraren gainean ezarri nahi zuen monopolioaren aurka. Herrietako biztanleek inguruko mendietan elurra betidanik bildu izan zutelako aldarrikatu zuten erregearen monopolio honen aurka.

Iruñeko Gorteak, beraz, arazoari konponbidea ematen saiatu ziren. Asmo horrekin, beraz, erabaki zuten modu naturalean bildutako elurra denentzat izanen zela, eta, aldiz, erregearen elurgizonaren langileek bildutakoa erregearena, bai 1612 urtean, bai 1642an. Erabaki horrek, hala ere, ez zuen arazoa behar bezala konpondu, askotan hagitza zaila izaten baitzen elurra gizonak bildua zen edo ez finkatzea. Hori dela eta, elurra norena zen zehaztearren, tira-bira ugari gertatu zen Nafarroako herrietan urte askotan zehar. Arazoa behin-betiko konpontzeko, erregearenak eta herri eta pertsona partikularrenak ziren elurzuloak bereizi egin zituzten.

Erregeak

Urbasa-Andiako eluraren gainean ezarri nahi zuen monopolioak arazo ugari sortu zituen

Horren adibide argia dugu 1672. urtean Kontu Epaitegiak Lizarrako elurzuloei buruz hartutako erabakia. Urte horretan zehaztu zutenenez, Orerunza eta Ekaizako elurzuloak ustiatzeko eskubidea bazuen Lizarrak, baita beste herrietako elur gizonak ere.

Iruñeak ere bazituen bere elurzuloak. Urbasan, adibidez, Ezkolezea, Lerdinburua, Lerdinburua Gibela, Iturgoiengo mugako lezea, Saldunze, Komarlezea eta Urrespilla lezea ziren Iruñekoak, Sarbilan Erret Pertsonaren putzuak eta beste hirur; eta Andian, Beraingo putzua.

Nafarroan, hala ere, bazen beste elurzulo ezagun asko ere. Horien artean, besteak beste, Aras, Muruzabal, Erriberri, Fitero, Urantzia, Otsakar, Nabatz edo Iruñeko Erret Jauregiakoa aipa daitezke. Azpimarratzekoa da, Tuteran, Corella eta Vianan, adibidez, hiruna elurzulo zutela. Lapoblacionen, berriz, lau zituzten, eta Logroñon ere saltzen zuten bertako elurra. X



Iruñearen eta euskararen arteko harremanaz eztabaidatu zuten jardunaldietan.

JOXE LACALLE

'Iruña eta euskara': lehen emaitzak

Iruñea eta euskarari buruzko jardunaldien ondorioak plazaratu ditu Iruñeko Udalak

A benduaren erdialdean Nafarroako Museoan eginiko 'Iruña eta euskara' jardunaldien ondorioak berriki jakinarazi ditu Iruñeko Udalak. Jardunaldietan parte hartu zuten adituen ustez, aipatzeko asko dago, tartean euskara izan dela iruindarren hizkuntza, gaur egun % 70ek badutela ikasteko interesa eta azken urteotan ekimen pribatuak eta ez Administrazioak egindako ahaleginak hobetu duela euskararen egoera Iruñean.

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑA ETA EUSKARA izenburupean, herrialdeko hiriburuetan eta euskararen arteko harremanari buruzko jardunaldiak egin ziren abenduaren 18, 19 eta 20an Nafarroako Museoan, gogoratuko denez. Berriki jardunaldi hauei buruzko ondorioak kaleratu ditu Iruñeko Udalak, jardunaldietan parte hartu zuten Eugenio Arraiza, Iñaki Azkona, Mikel Belasko, Jose Maria Jimeno Jurio, Jose Manuel Leitza eta Carlos Vilchesek eginda.

Iruña eta euskara jardunaldietan, Iruñeko hizkuntzen histo-

riaz, toponimiaz, hiriko egoera soziolinguistikoaz eta hizkuntz politikaren gai eta ekintza-planez aritu ziren hiru egunetan zehar bertan bildutakoak. Gai hauei guztiei buruz ateratako ondorioak, berriz, bost ataletan bildu dituzte.

Lehenik eta behin, euskararen erabileraz eta erabilera esparruez, hiriko euskaldunen ezagueriaz eta hizkuntzarekiko iruindarren jarreraz lortutako datu objektiboaren garrantzia azpimarratu dute txostenaren egileek. Gainera, biztanleek oro har eta hiriko sindikatu eta gizarte erakundeek bereziki datuon berri jakin dezaten garrantzitsua dela uste dute. Hori izanzen litza-teke, beraz, hurrengo urratsa. Hasteko, jardunaldien antolaketan eta honek gizaratean eta komunikabideetan izandako oihartzuna positibotzat jo dute antolatzaileek, baita aurkeztutako ponentzien goi maila zientifikoa ere.

Bigarrenik, hiriko historiaz eta toponimiaz egindako ikerketen hariari helduz, iruindarren hizkuntza gizarte maila guztietan euskara izan dela egiaztatu dute txostenaren egileek. Euskararen ondoan, nolana, hizkuntza erromantzeek ere leku garrantzitsua bete zuten eta erabilera formal guztietarako erabili zituzten. Hizkuntz ordezkapen hau da, hain zuzen, euskara desagertzeko prozesuaren benetako gakoa,

aipatu dutenez. Are gehiago, historiaren bilakaerarekin batera, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, adituen idurikoz, euskara poliki eta sistematikoki alboratuz —batez ere, Errenazimenduko erresuman Nafarroaren independentzia galtzean, Borbon dinastiaren etorreran, estatu liberal zentralistaren ezarpenean eta horrelako bidegurutze garrantzitsuetan—.

Hala ere, galera horrek berreskuratzeko mugimenduak sortu izana nabarmendu dute egileek euren txostenean, besteak beste, XVIII. mendeko talde apologista. Mendeko honetako lehenengo hiru hamarkadetakoa berpizkundea eta garai berriagoetako ere aipatu dituzte.

Iruindarren % 70ek euskara ikasteko interesa dute • Euskararen erabilerari buruz eta iruindarren euskararekin duten jarrerari buruz gaur egun dau den datuak ere ikertu dituzte egileek berriki plazaratutako agirian. Jardunaldietan, hain zuzen, Soziologia Tailerrak 1993. urtean Nafarroako Gobernuarentzat egindako ikerketaren berri eman zuen Carlos Vilches soziologoak, eta bertako datuen arabera, iruindarren % 9,7k ongi ulertzen dute euskara eta % 4,2k zailtasunez. % 7,9k, berriz, ongi hitz egiten dute eta % 4,8k zailtasunez. Txostenak azpimarratu duenez, halaber, iruindarren

% 70ek euskara ikasteko interesa badu.

Gaztelania hizkuntzari erabili dena dela, hala ere, ez dute ahaztu, eta helburutzat jo dute ofizialtasunaren eta erabileraren aldetiko berdintasuna gaztelaren eta euskararen artean; benetako elebitasuna, finean.

Irakaskuntzari dagokionez, beñalde, euskarazko irakaskuntzak gizaratearen implikazioari esker gora egin duela plazaratu dute txostenaren egileek. Bestetik, euskararen galera oraindik gertatzen bada ere, galtzen diren baino euskaldun gehiago irabazten direla azpimarratu dute, gazteen artean batik bat. Gazte belaunaldien euskara mintzatuaren kalitatea, hala ere, kezkatzekoa dela gogoratu dute.

Iruñeko euskaldunek euskara non erabiltzen duten ere Nafarroako Museoan jardunaldietan aztertu eta eztabaidatutako gaia izan zen. Txostenak ondorio argia jaso du gai honi buruz: sendia, lagun arteko giroa eta irakaskuntzarekin zerikusirik duena dira euskaldun iruindarren funtsezko esparruak. Administrazio publikoan, osasun zerbitzuetan eta zerbitzu publikoetan, ordea, ez da euskara erabiltzen. Izan ere, txostenak aipatu duenez, euskararen egoeran gertatutako aurrerapena ekimen pribatuaren esparruan egindako ahalegin pertsonalen fruitua izan da. X

«Ekimen pribatuaren esparruan egindako ahalegin pertsonalen fruitu izan da euskararen inguruan emandako aurrerapena»

«Hizkuntz ordezkapena da euskara desagertzeko prozesuaren benetako gakoa eta gero eta garrantzi handiagoa du»

Xanti Begiristain

Ruben Beloki norgehiagokan

■ Ez da bonbila asko eduki behar buruan konturatzeko zer mailako pilotaria den Ruben Beloki. Esan liteke ia-ia gaitasun guztiak neurri bikainean dituela. Batzuen batzuk baino ez aipatzearen, hona hemen sail txiki bat: pilotari luzanga eta dotorea da, indartsua (agian indartsuena), gaztea (txapeldunik gazteena) eta gainera emakumeek eta neskatxek diote oso ongi dagoela. Beste alde batetik esan beharko genuke, profesionala izan baino lehen, ziur aski, dena edo gehiena irabazi zuela, munduko txapel edo domina bat barne, eta orain, profesional denetik, banakako eta binakako txapelak denboraldi berean, besteak beste. Era berean, jende askok gorapatzan ditu mutl gazte honen buruargitasuna jokoan, trebetasuna solasean, heldutasuna izakeran, apaltasuna eta abar. Aldi berean ikusten zaio jarrera positiboa euskararekiko, euskal kazetariarekin, nahiz eta berak euskaraz gutxi jakin. Dirudienek, instituturen batean zer edo zer ere ikasten ari omen da. Labur bilduz, esan genezake edozein pertsonak ez duela baxterre erraza horrelako maila lortzea.

Duela gutxiko egunkari batean irakurri nuen, Ruben Belokik adierazi zuela Julian Retegiren marka gainditzea. Ez dakit; auskalo zer gertatuko den! Osasun ona baldin badu, sasoiaren jarraitzen badu eta ezbeharrik ez baldin bazaio suertatzen, li-tekeena da dena. Denborak esango du.

Azkeneko hori irakurri nuenean, pentsatu nuen arlo batean gutxienez bai duela zaila Rubenek Julian gainditzea, eta alor hori, euskararen esparrua duzue hain zuzen ere. Egia esanda, Julian Retegik horren ongi egiten du euskaraz, patuak eraman zuelako Eratsunera jaiotzera eta haztera. Berak, seguru asko, ez zuen ahalegin handirik egin beharrik izango horren dotore ikasteko, txikitatik berez irakatsi baitzioten. Hori bai, inola ere ez dut ukatuko Julianen buruazkartasuna.

Horrexegatik pentsatu nuen, Rubenek iritsiko balu Julianen euskara-maila, orduan, benetan, bai ez litzatekeela batere makala izanen Belokiren balentria! Orain, ziur aski, gauza eta kezka gehiegi izango du buruan, horretan pentsatzen hasteko, baina ni konbentziturata nago, benetan nahiko balu eta denbora pixka bat emango balio ikasteari, or-

duan lor lezakeela maila polita; nahiz eta Juliana ez gairitu, neronek behinik behin, poz galanta hartuko nuke, eta are gehiago oraindik, gogoan hartzen baldin badugu, azken urteotan txapeldun erdaldun ugaritxo izaten ari garela (Beloki, Capellan, Titin, Santi, Patxi Aoz,...). Honekin ez ditut inondik ere kritikatu eta gutxietsi egin nahi pilotari hauek, ez. Esan nahi dudak bakarra da, kazetari euskaldunek ere oso gogoko dutela beren hizkuntzan elkarrizketatu ahal izatea pilotari txapeldunak, erdaldunak beren mintzairan egiten duten bezalaxe. Baina, horretarako pilotariak ere euskaraz jakin behar, ordea!

Bukatu baino lehen, bitxikeria pare bat: 1. Irakurleok!, konturatu al zarete Fernando Arretxeri



jartzen diotela gehienetan Arreche? Zergatik izango ote da? Ezjakintasunagatik, apika? Rubeni, Beloki jartzen diote, eta agian ez da Arretxe Beloki bezain euskalduna? (Abizena esan nahi dut. Bide batez, adierazi dezadan beste horrenbeste egiten dutela Zezeagaren deiturarekin, Ceceaga idazten dutenean, hau da, kasu gehienetan). Eta 2. Erreparatu al zenieten txapeldunen txapelei? Nik bai, eta begiek ez baldin baninduten saldu, lepo eginen nuke gaztelera batu eta hutsean zeudela idatzirik, bai lehen mailakoak zein bigarrenekoak, beraz, orain ez dakit nola idatzi beharko ditugun irabazleak, *chapeldunak* ala *boinadunak*.

Dena den, ez dezagun itxaropena gal, eta pentsa dezagun, egunen batean, Ruben Belokik euskararen pilota, agian, altxatuko duela goiko marra-raino eta errebotean egundoko tantoa sartuko duela. ■

Klasiko bitxi • arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Aiko protestantearen oihartzun aizkortsuak (III): Webster eta Uranga

■ Wendworth Webster Eliza Anglikanoaren mezulari iritsi zen Miarriztera 1870. urtea baino lehen. Middlesexko Uxbridge 1828. urteko ekainaren 16an sortu zen ministrari honek Brighton eta Oxfordeko Lincoln Collegen egin zituen ikasketak, eta 1854. urterako diakono bagenuen Sommerseteko eliz-parrokian, nahiz osasun arazoak zirela eta 1861. urtera arte etzen apeztu. Euskal Herrietara baino lehen abondotara egokitu zitzaion hala nola Eskozia, Suitza, Argentina edo Egiptora eta Pirinioetara heltzean Bigorreko Bagneresen ezkondu zen. Miarrizetik Donibane-Lohizunera jo zuen, eta handik Sarako erretoetzara 1882. urtean, non lehenbizkako Belexien eta Krespoenian segituan bizi izan zen 1907. urtean zendu arte. Erljiioaz lan bat baino gehiago utzi zituen, esate baterako 1889ko *Hebraizantes portugueses de San Juan de Luz* en 1619 Madrillgo Historiaren Erret Akademiaren aldizkarian, 1892ko *A protestant church in the Pyrennes* Londresko *The academy* aldizkarian, 1900eko *Les basques défendus en 1788 par un anglais contre les calomnies d'un espagnol évêque et cardinal* Baionako Arte eta Zientzietako elkartearen aldizkarian, edota 1903ko *Gleanings in church history, chiefly in Spain and France*. Halarik eta guziz ere, euskaldunoi lan hauez gainerakoak interesa liezazkiguke gehien, hots, euskal kulturarekin zerikusirik duten guzi horiek. Gure klasikoak bilduma txiro baino nara asko horretan, orain dela hiru urte Xipri Arbelbidek bi aletan prestatutako *Ipuinak* izenburupean Websterrek Donibane-Lohizunen Dajieubaitako Belleuve andreari jasotako istorioak argitaratu zituen lehendabiziko aldiz euskaraz. Bi urtera Zuberoako herri antzerkiak solasgai izan zituen *Quelques notes sur les pastorales basques* idazkian. Alabaina bizi eta ikeritutako oro hil baino sei urte lehenago Chalons sur Saonen karriratu *Les loisirs d'un étranger au Pays Basque* liburuan jaso zuen.

Ildo katoliko-apostoliko erromatarrari bildu etzitzazkionen berri apurra eskeini dituen emanaldi hirukoitz hauxe hagitx aditua izan ez bide den tolosar berezi batekin ere ahitu nahiko genuke. Nemesio Joxe 1827. urteko abenduak hemezortzi egun zituenean sortu zen esan Gipuzkoako hiriburu zaharrea eta giputz gauen sailhes guzietatik bizkaitar zuen amona bat salbu, alta gurasoak Ordizia eta Soralezkoak baitzuten eta aitaxi-amatxiak Ordizia -Uranga-, Gaintza -Olano-, Oñati -Gerra- eta Gerrikaizkoak -Irazabal-. Alabaina, etzen gipuzkoarra bere ahaidegoaren bizilana moldatu zuena, zuberotarra baizik. Izan ere Joannes Ibar Belloc Ibarriako atharrastarra izan baitzen paperaren ekoizpenari hasmentan eman ziona Gipuzkoako Tolosaldean. Zubero eta Biarnon aspaldidanik ba omen zen paper ona egiten, oOo ur markadunak hain zuzen ere. Ibarrek Arterrekako Urzuriaga errota ezarri zuen bere lehendabiziko lantegia. Alegin, eta beranduxeago, Azaldegiko baserri bat erosi zuen helburu bera betetzeko Tolosan bertan. Azken hau independentziaren gerratean erreta izan zen, eta Nemesioren aitak aukera ezin hobea negozioa handitzeko ikusiz, zegoen moduan erosi zion Ibar zuberotarrari eta estrazako paper zaharra egiten hasi zen. Honetaz gainera Urangatarrek bazuten beste lantegi bat, Igerondoko eiharan zeregin berbera betetzeko atondu zutena. Nolanahi ere den Nemesio gazteak 16 urte doi-doiak zituela umezurtz geratu zen eta bi lantegi hauen ardura bere osaba Juan Antonio Urangak bereganatu zuen. Azken honek lan bikaina egin zion ilobari, baina 1854. urtean hiltzean, gure Nemesiok jaso negozioa aitzina eramateko beharrea kausitu zuen bere burua, eta sosa kontuetan ezintasunik nabarmenena agerian utzi ostean, kilimon molokotarik borobillena iragarri zuen 1867an. Halarik ere ondasunak saltzeko bezerorik etzitzaila falta eta ekoizteko enpresa ezagunaren aurreko zuzena izan zena. Salmentaren bidez lortutako irabazi guzietan bere sorterritik aldegin zuen 1868. urtean Parisera. Orduan frantsesez izkirituriko berezi xamarra den liburua karriratu zuen hiri berean izenburu honekin, *Jesus et la religion naturelle ou le rationalisme chrétien*. Santanderko historialari jakitun baina nakaitz samarra zen Marcellino Menendez Pelayok bere *Historia de los heterodoxos españoles* bilduma zabal ospetsuan arrazoiaren erlijio berri baten sortzailatzat jo zuen Tolosakoa, eta hortan etzuen kristau moralez jantzitako erlijio bat baino ikusten, misterio santu, elizkizun sakratu eta hierarkia gibelaurdirik gabe asmatuta zegoena. ■



Nafarroako banakako txapelketako lehen jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 20an jokatu.

J. M. Sorozabal, 1.785 ELOkoa —

Miguel Argaya, 1.965 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ac4,Ac5; 4.c3,Zf6;

5.d4,d4; 6.d4,Ab4 xa; 7.Ad2,d5.

Jokaldi gakoa, piezak atera eta erdigunea kontrolatzeko.

8.Ab5,Ad7; 9.e5,Ze4; 10.Zc3.

Ikus koadroa. Ez da ona izan zaldiaren ateraldi

hori eta partida kostako zaie txuriei.

10.....Zd2; 11.Dd2,Ze5.

Peoi erabakigarria irabazi dute beltzek.

12.Ad7 xa,Zd7; 13.De3 xa,De7; 14.De7 xa,Ee7; 15.0-0,Ac3; 16.c3,hG-e8; 17.aG-b1,b6; 18.c4,c4; 19.fG-c1,c5; 20.Gc4,f6; 21.g3,Ed6; 22.c5 xa,Zc5; 23.Gd1 xa,Ec7; 24.Zd4,aG-d8; 25.dG-c1,Eb7; 26.Gb1,Ge4.

Beltzentzat aldiko beste truke bat.

27.Gc5,eG-d4; 28.Gc2,Gd2; 29.bG-b2,Gc2;

30.Gc2,Ge8; 31.Ef1,b5; 32.f5,Eb6; 33.Gd2,Ge7;

34.Ef2,Ea5; 35.Ef3,Ea4; 36.g4,a5; 37.g5,g5;

38.g5,Ea3; 39.Gd5,Ea2; 40.Gb5,a4; 41.Gb4,a3;

42.h4,Ea1; 43.h5,a2.

Txuriek etsi zuten. Peoi bat nahikoa izan daiteke partidaren gailentzeko.





Iazko kauteren eguna, Iruñeko Errekoletak plazan.

FERNANDO HUALDE

Iruñeak kauteren jaia berreskuratu du

Hiriburuan bezala Beran ere kauteren eguna ospatuko dute otsailaren 10ean, inauteriak iragartzeko

F. Hualde - E. Elizondo / Iruñea

LAUGARREN URTEZ jarraian, Iruñeak hilaren 10ean kauteren jaia ospatuko du. Ustez Hungariatik etorritako pitonisek, ijitoek, hartzek, gaiteroek eta txarangek egun batez aldatuko dute Nafarroako hiriburuko giroa.

Aurten, Iruñeko Kauteren Elkarteak (Iruñeko Kauterak), Iruñeak aspaldi izan zituen jai elementuak berreskuratu nahirik, prest dago gu denok harritzeko berritasun sorta handia eskainiz eta, horretara, jai honi inondik ere malla eta ospe handiagoa emanaz. Dagoeneko Iruñeko aratusteetako ekitaldi erakargarrien eta jendetsuenat har dezakegu kauteren jaia.

Emakumezkoen kolore askotako gonei, blusa zuriei eta txaleko beltzei, hala nola gizonezkoen praka ilunei eta patilla luzei, guztiek ere buruan zapi bat daramatela, kazolak, lepokoak, balde metalikoak gehituko zaizkie, baita beste garai batzuetan kauterak Iruñeko kaleetan saltzeko ekartzen zituzten beste hainbat objektu ere.

Oinezkoa, aurten, mandeme izugarri handi batek harrituko du: Kataluniako *tarasca* (heren-suge) delakoan antzera, Iruñeko inauterietan inoiz falta izan ez den suarekiko-pertsonaia izango da.

San Jorge auzoan abiatuko dira hungariar ijitoen jai-desfileak eta, goizeko hamarretan hasita, ekitaldi egitarau trinko bat izango da bertan. Arratsaldean, Iruñeko gainontzeko auzoek, trikitiaren hotsean, bat egingo dute egun magiko horrekin, eta, jende zein talde ugari mugiarazita, az-

Laugarren urtez kauteren jaia ospatuko dute iruindarrek ostailaren 10ean. San Jorge auzoan abiatuko dira hungariar ijitoen karrozak eta, arratsaldean, Iruñeko gainontzeko auzoetara zabalduko da jaia. Iruñera bezala Berara ere ailegatuko dira kauterak inauteriak iragartzera. Herri honetan, hala ere, aspaldiko ohitura da kauteren eguna ospatzea.

kenean Takonerako lorategietan elkartuko dira, Julian Gaiarreren monumentuaren inguruan. Egun horretan jendetza handiak parte hartzea aurrakusi du Udaltzaingoak, 10.000 bat lagunek gutxi gora-behera.

Iruñeko Kauterak elkarteak egun horretarako, jaia iragartzeko kartelaz gain, 40 orriko aldizkari bat argitaratu du, interes kultural eta etnografiko handi-

koa, eta jaia deituta dagoen toki guztietan salgai izango da.

Momoren mezulariak Beran ere • Iruñera bezala Berara ere otsailaren 10ean ailegatuko dira kauterak, arratsaldeko sei eta erdiak aldera, urtero bezala. Hungariako bisitari berezi hauek, Momo euren erregearen mandatuari jarraiki, inauterietako mozerro egunak iragarriko dituzte, kantu

eta dantzen bitartez. Beran, hain zuzen, otsailaren 17, 18 eta 19an izanen dira inauteriak. Ilekua auzoan bilduko dira Berako hungariarrak, haur, gazte eta helduak. Bertatik atera eta Alzate eta Legia karraketan barrena ibiliko dira, udaletxeko plazara ailegatu arte. Bidean ohiko abestiak kantatuko dituzte kauterak, pandereta eta zartagi eta mailuen bitartez ateratako hotsaren artean.

Kauterekin batera, ohikoa den bezala, karroza eta hartza ere ibiliko dira karraketan barrena.

Berako plazan bi kauteren arteko ezkontzaren lekuko izanen dira bertan bildutako beratarrak. Kauteren ohiturak agintzen duen legez ezkontzako dira gainera, eskumuturrean egindako ebaketatik ateratako odola batuz, hain zuzen ere. Etorkizunak kauter ezkonberrientzat gordetzen duena ere argitzen saiatuko dira, buztinez egindako pitxerra airera bota eta lurrera erortzen utziz. Buztin puska bakoitzeko seme-alaba bat izanen dute senar-emazte berriek, diotenez. Eta ezkontza ospatu ondoren, baraxuri zopa janen dute bertan bildutako guztiek, kauteren egunari behar den moduko amaiera emateko. Aurten ezkontzako diren beratarrak gazteen izena, beti bezala, azken unera arte sorpresa izanen da.

Beratarrak otsailaren 7an hasiko dira betiko abestiak entseatzeko. Aipatzekoa da, halaber, azken bi urteotan bezala Berako dantzariak sortutako dantza dantzatuko dutela kauterak aurtan ere. Batak besteari eskutik heldu eta aurrera eta atzera ibiliko dira, hurrengo urtera arte agur erranez.

Beratarraren artean arrakasta handiko jaia da inauterietan etorrera iragartzen duen kauteren eguna eta jende askok hartzen du parte. Iazko egunean, adibidez, ehun lagun inguru bildu zen Berako karraketan kauteren soina jantzita. Kauteren jai berezi eta zoragarria, hala ere, ez da berria, 70eko hamarkadako azken urteekin batera hasi baitziren ospatzen Beran. X



Hungariar ijitoek hartuko dituzte berriro Iruñeko kaleak.

ARTXIBOKOA

◆ Jose Antonio Errea ◆ Sagardogilea

«Sagardotegi giroa bada Nafarroan»

Jose Antonio Errea nafarrak orain urte eta erdi zabaldu zuen Aitzoainen sagardotegia. Gipuzkoan piztu zitzaion gaztetan sagardoarekiko zaletasuna, bertan ezagutu baitzuen sagardotegietako giroa. Giro hori, orain, Nafarroan hedatu nahi du Jose Antonio Erreak eta urte eta erdian lehen urratsak eman ditu. Bere ustez jendea erakartzea lortu dute Nafarroako sagardotegiek. Hil honen 20an hasitako aurtengo denboraldia ona izanen dela ziur da Aitzoaingo sagardogilea.

Edume Elizondo / Iruñea


URTE OSOAN irekita dago Jose Antonio Errearen sagardotegia. Bazkalordua baino lehen, hala ere, giroa lasaia da oraindik eta upelak ere isilik daude. Sagardogilea aurtengo denboraldiaren hasieraz, sagardotegietako giroaz eta sagardoaz, noski, mintzatu zaigu tarte horretan.

■ **Nola erabaki zenuen orain urte eta erdi sagardotegia zabaltea?**

Betidunik izan dut sagardoa gustuko. Juan Igancio Gastizaran neure lagunak, gainera, sagardotegia zuen Gipuzkoan eta berarekin hizketan bururatu zitzaidan Aitzoainen sagardotegia jartzea. Nafarroatik beti Gipuzkoara joan izan da jendea sagardotegietara, beraz, hara joan baino, etxean bertan sagardotegia zabaltea aukera polita izan litekeela pentsatu genuen. Pentsatu eta egin.

■ **Zurea ez da, gainera, Nafarroan dagoen sagardotegi bakarra, beste lau ere badira. Zein da gaur egun zuen egoera, Gipuzkoako sagardotegiekin alderatuz.**

Nire ustez, jendea erakartzea



Aitzoainen du Jose Antonio Erreak sagardotegia.

JOXE LACALLE

lortu dugu eta lehen ez zegoen sagardotegi giroa sortu da. Hala eta guztiz ere, hemengoek ez dituzte Gipuzkoako sagardotegiak ordezkatu, hau da, hemengo jendea Nafarroako sagardotegietara etortzen da, eta baita Gipuzkoakoetara ere.

■ **Baina ba al dago herrialde bietako sagardotegien artean ezberdintasunik?**

Gipuzkoan, egia erran, ohitura gehiago dago eta jendea sagardoarengatik joaten da. Hemengo sagardotegietan, ordea, jendeak bazkaria edo aforia bilatzen du lehenbizi eta gero sagardoa. Hala ere, nire ustez oraindik sagardotegi gehiago zabalduko dute Nafarroan, gora doan mugimendua dela uste baitut.

■ **Sagardoa bertan egiten duzu. Nolako prozesua da?**

Sagarrak urriaren hasieran

erosi eta Donostian txikitu genituen, hemen ez baitugu prentsarik. Bertatik ekarri eta upeletan sartu genuen zukua. Gutxi gorabehera bi hilabete egon da upeletan irakiten. Nafarroako sagarrak eta Asturiaskoak nahasten ditugu. Nafarroakoak, izan ere, nahiko gozoak dira eta ateratzen duten sagardoa ilunagoa. Horregatik, berdeago eta bi-ziagoak diren Asturiasko sagarrarekin nahasten ditugu, sagardoaren ohiko zapore eta kolorea lortzeko. Gipuzkoako eta Galiziako sagarrak ere erabiltzen ditugu. Aurten, hain zuzen, sagardo ona atera zaigu, nahiko xua-bea, argia eta usain handia duena.

■ **Upelak ere zerikusirik al du sagardoaren kalitatean?**

Antzina eta baita gaur egun ere, gaztainondo edo haritzen zura erabili izan da upelak egiteko. Baina zura bizirik dagoen produktua izanik, sagar berberena zukua upel batean edo bestean sartuta, sagardo erabat ezberdina atera daiteke, zuraren beraren ezaugarriak hartzen baititu.

Gaur egun, horregatik, altzairu herdoilezinezko upelak erabiltzen dira askotan. Nik ere horrelakoak ditut sagardotegian. Altzairu herdoilezina, finean, oso garbia da eta zukuaren berezko ezaugarriak ez dira ez galtzen ezta aldatzen ere.

■ **Hil honen 20an hasi zen Nafarroan aurtengo sagardo denboraldia. Nolako hasiera izan da eta zer espero duzu?**

Hasiera ona izan dela uste dut. Jende anitz etorri da lehenengo aste hauetan eta otsailerako ere, dagoeneko, jende askok deitu du mahaia gordetzeko. Eta denboraldi osoari dagokionez ere, ona izanen dela espero dut, iazkoaren berdina, behintzat. Iaz, hain zuzen, denboraldi ona izan genuen, hasiera indartsua izan zen, otsailen eta martxoan, batez ere. Aurten ere hauek izanen dira gure ustez hilabeterik onenak.

■ **Zein da, zure ustez, sagardogile onaren sekretua?**

Niretzat produktua zaintzea da funtsezkoa. Sagartetik hasita, kalitatea bilatu behar du sagardogileak, sagar onak eta garbiak

s o s l a i a

Sagardotegia Aitzoainen jarri badu ere, Eugén jaioa da Jose Antonio Errea. Gazte garaian, hala ere, Gipuzkoa aldera joan zen 15 urte zituela ikasketak amaitzera, eta bertan bizi izan da orain dela bi urtera arte.

Gipuzkoan bertan eman zituen Jose Antonio Erreak ostalaritza munduan lehen urratsak. Zortzi urtez, hain zuzen ere, Oiartzunen kanpin bat izan zuen, baita bertako ostatu eta jatetxea ere.

Sagardotegiaren proiektua martxan jartzeko, berriz, Nafarroa aldera itzuli da Errea. «Hasieran sagardoa egiten zaila izanen zela uste nuen, baina ez da horrela. Prozesu osoa gertutik zaintzea da gakoa, arreta handia eskatzen du, baina ez da zaila». Bere sagardotegikoak ez da, hala ere, Erreak edaten duen sagardo bakarra, aspaldidanik eta bere lagunekin batera beste sagardotegietan bazkaltzen baitu asteazkenero.

«Sagardoa egitea ez da zaila baina prozesua asko zaindu behar da, arreta handia eskatzen du»

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
7

GAUR:

XAKE
TAULA

RAYMOND
CHANDLER

Xake taula atera eta pipa bete nuen. Piczak jarri eta GORTECHAKOFF/MENINKIN arteko txapelketako partida bat jokatu nuen



..70 mugimenduren ondotik berdinketan bukatu zena.



Bizirik gabeko gauzetan dagoen indar izugarriaren adierazle armadurarik gabeko bataila, odolik gabeko guda...

...eta edozein lekutan aurkitzen ahal dugun Biza bogo biziriaren aberastasunaren adibide...



...edozein lekutan... Publizitate agentzietan izan ezik!

